

## "Gure herriko historiaren liburu modernoa idatzi beharko litzateke"

Joxi Ubeda

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-11-22: 28.

Martin Ugalderen "Nueva Síntesis de la Historia del País Vasco" liburuaren argitalpen berritua aurkeztu zuen Ttarttalo etxeak atzo Donostian. Egileak berak parte hartu zuen ekitaldian, eta liburua osatzeko arrazoiak eta izandako oztopoak azaltzeaz gain, dela luzatu zien unibertsitateko kideei. Ikerlariei eta historialariei Euskal Herriko historia sakonago eta zabalago lantzeko eta euskaraz argitaratzeko.

(...)

Idazle, kazetari, EUSKALDUNON EGUNKARIA-ko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, Martin Ugaldek liburua idazteko arrazoiak azaldu zituen atzoko ekitaldian, Koldo Mitxelena Kulturunean. Francoren diktadura garaian erbesteratu, Venezuelan eta Estatu Batuetan izan zen, eta 1969an Amerikatik Euskal Herria itzuli zen. "Galderak egin nituen hemen eta inork ez zekien ezer ere. Liburutegietan ez nuen informaziorik aurkitzen, gauzak laburrak bai, gai lokalak, baina non den gure herria galdetzen nuen. Ez zen ikusten, ez nuen aurkitzen", aipatu zuen Martin Ugaldek, "hasieratik hasi nahi nuen, gure zentzua eman nahi non gure historiari. Euskadiri buruz herri bezala hitz egiten zuen liburutik ez zegoen".

Antropologia eta beste hainbat gai landu zituen Joxemiel Barandiaranekin eta hizkuntzaren alorra Koldo Mitxelenarekin. "Francoren garaian bekatu mortala zen hori publikatzea. Nire lana neketsua izan zen eta urria. Gauza asko ez nituen aurkitu, baina konturatu nintzen nire interesa herriaren interesa zela". Martin Ugalde Euskal Herriatik kanpo, erbestean, eta liburua Madrilen argitaratu zen. "Hori abantaila izan zen liburuarentzat. Kazetari izateak asko lagundu zidan gauza horiek denak ikusten, egia esan, eta gero lan handia egin behar izan nuen".

Euskal Herriko historia euskaraz idazteko dela ere luzatu zuen Martin Ugaldek. "Non dago gure unibertsitatea? Non daude gure ikerlariak, historia ikasten ari direnak? Historia berri bat, ondo egina, sakonagoa, zabalagoa, historiografia aberats batekin landuta egiteko gai direnak?", galdetu zuen egileak. "Hori da gaur hemen erreklamatu behar dena. Liburu honek izango ditu gauza onak, baina akatsak ere izango ditu. Orain ez dago Francoren aitzakiarik, euskaraz nahiz erdaraz argitaratu liteke, nire kasuan ez zen hori gertatzen".

Horrek harritzen du Martin Ugalde. "Pasatu dira urteak, unibertsitatea eta liburutegi handiak badira, nazionalismoaz asko idatzi da, eta inork ez du horrelako liburu bat atera. Nik eskatuko nieke unibertsitatekoei eta historialariei egin dezatela lana, eta atera dezatela gure herriko historia garbiagoa, sakonagoa, zabalagoa". Euskal Herriaren biografiaz arduratzea eskatu die. "Ikertu, eta liburu modernoa argitaratu

beharko lukete. gure herriak maite du gure historia. Idatzi eta zabaldu egin behar da".  
Martin Ugaldek adierazi duenez.